

## NIRE ALA ZURE ASKATASUNA?

Askatasuna!

Benetan gizaki izan nahi duen edonoren deialarra duzu hau; jatortasunaren, onaren, edertasunaren giltza eskuratu nahi lukeenarena; kreatzaile izan nahi lukeen edonoren deialarra..

Guztiok gara askatasun zale! Ni, zu eta guztiok!

Baina *nire* askatasunak ez al du eragozten, galerazten *zurea*?

Batzutan inorentzat morrontza dakarren askatasuna aldarrikatzen da.

Askatasuna elkarri egin ohi diogun eskaintza dela uste izan dut beti. Hau da: besteek niri aske izateko aukera ematea; edo eta nik neure burua mugatuz besteei aske izateko bideak eskaintzea. Beraz, ez dago benetako askatasunik neuk besteei eskaini gabe, neure askatasun hau kendu nahiz murrizten didatenean.

«Neure askatasuna» besteen lepotik ezartzea, inguruan morroiak sortzea dela dirudi; hots, «nire askatasuna» beste batzuren morrontza bihurtzen dela.

Maitasunik gabeko gizakiak ez du ezertarako aukerabiderik.

Konplexuz beterik dagoenak ez du bere eritziak adierazte-

ko askatasunik. Eta honelakoak, hitz egitean, askatasunik eza erakusten du ahoa ireki orduko.

Eguneroko gauza harrigarri bat ikusten dugu: ezarian-ezarian morrontza berri bat sortuz doala. Aginte politiko eta ekonomikoak sorterazitako morrontza, eta bereziki komunikabideek (prentsak, irratiak, telebisiok...) sorterazitako morrontza. Askatasuna aldarrikatu eta aldarrikatu ari dira... baina askatasuna... noren askatasuna? Euren! Eta bestecna zer?

Adierazpen-askatasuna ongi dago eta beharrezkoa da, baina norentzat? Izen eta guzti eman daitezke egunero gertatzen diren kasu horietarikoak. Norbaitzuk (adibidez irratiak eta telebisiok) askatasuna aldarrikatzen dute eta adierazpen-askatasuna (euren boterea) erabiltzen errimeak dira; baina inork beraien aurka askatasun berbera erabiliz gero, orduantxe kontuak! Oso sentikor agertu ohi dira eta ezin dute jasan inoren eskubide hori... Adierazpen-askatasuna euren eskubidea bakarrik bailintzan jokatzen dute.

Askatasuna, edo eta hobeki esan, «euren askatasuna» aldarrikatzen duten horiek, komunikabideen bitartez ez ote dira morroi berriak sortzen ari? Argi ikusi zen hori Fernando Sabaterrek eta Idoia Estornes-ek ETB-2an eman zituzten erantzunetan, «El otro punto de vista» programan, «La última tentación de Cristo» pelikulaz solasaldia izan eta galdera pertsonala egin zitzaienean. (Behar bada gogoan izango dituzue hango zurrumurru eta salakuntzak)..

Adierazpen-askatasuna norentzat? Batzurentzat bakarrik? Eta zergatik eta beste guztientzat ere?

Norbaitek, noski, bere adierazpen-askatasuna bidegabeki nire aurka erabiltzen badu, ukatu egiten dit, kendu egiten dit neure askatasuna; eta nik ere nahi dut askatasuna!

Askatasuna, nik neure burua, neure askatasuna mugatzen dudanean bakarrik dago, eta ez besteek askatasun hori murrizten edo eta kentzen didatenean. Nork bere burua mugatzea ez da as-

katasunaren aurkakoa, askatasun-ekintza baizik; neure hautaketa, neure askatasunaren adierazpena da, besteei neure askatasunaren eskaintza egitea.

Orain arte pertsonetikiko, hots, pertsona banakoen arteko jokaeraz aritu naiz...

Baina herrien arteko harremanetan ere beste horrenbeste gertatzen da: Adibidez, Madrilek bake eta askatasuna nahi ditu; Gasteizek ere bai. Baina batzuk besteen lepotik euren bake eta askatasuna ezartzea, besteei eskubide berbera ukatzea litzateke; beraz, besteak euren morroi bihurtzea.

Guztiek nahi dituzte bake eta askatasuna; hobeki esanik, *euren* bake eta askatasuna, baina inoren bake eta askatasunaren uko egin ohi zaio sarritan.

Askatasuna!

*Nire* askatasuna ala *zure* askatasuna?